EIBARKO UDALA

2018ko Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien bosgarren espedientea.

"2018. jardunaldiko Udal Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izatera, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

Udal Aurrekontuaren Kreditu Gehigarrien Bosgarren espedientearen inguruan alkateak egin duen proposamena eta kontu-hartzaileak egindako txostena ikusita,

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordeak, Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien Bosgarren espedientea onartzea eskatu dio Udaleko Osoko bilkurari, honako zenbateko hauek dituena:

LABURPENA KAPITULUKA

I. FUNTSEN JATORRIA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 73.066,96 |
| **Guztira, gehikuntzak adina** | | **73.066,96** |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

Quinto expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal 2018.

"Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal del Ejercicio 2018; se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Vistos, la propuesta de alcaldía sobre el Quinto expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal y el informe del interventor sobre el expediente,

A continuación la comisión de trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio propone al Pleno Municipal la aprobación del Quinto expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal cifrado en las siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 73.066,96 |
| **TOTAL igual a los aumentos** | | **73.066,96** |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 61.819,15 |
| 4 | Transferentzi. arruntak | 11.247,81 |
| **Kredituen gehikuntza guztira** | | **73.066,96** |

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de Personal | 61.819,15 |
| 4 | Transfer. corrientes | 11.247,81 |
| **TOTAL Créditos en aumento** | | **73.066,96** |

Kreditu Gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin."

Asimismo el presente expediente de Créditos Adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública."

Gipuzkoako Gurutze Gorriari Pagaegi kaleko 5 behean dagoen ondasun higiezina doan lagatzea.

Cesión gratuita del bien inmueble sito en la C/ Pagaegi, 5 bajo a Cruz Roja Gipuzkoa.

"Gurutze Gorria-Gipuzkoak egin duen eskaeraren berri eman da, Pagaegi kaleko 5ean dagoen udal titulartasuneko lokal partekatua Udalak doan erabiltzen laga dakion, eta herritarren onerako dituen egitarauak egiteko erabil dezan.

Orobat, Gizartekintzako Arduradunak eskaeraren alde egin duen txosten teknikoaren berri eman da; baita Gizartekintza Batzordeak egin duen proposamenaren berri ere.

Ikusita, honakoek egindako txostenak:

- Udal Idazkariak
- Udal Arkitektoak
- Udal Kontu-hartzaileak

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak Udal Osoko bilkurari erabaki-proposamen hau onartzeko proposamena

"Se da cuenta de la solicitud presentada por Cruz Roja Gipuzkoa de cesión gratuita del local compartido de titularidad municipal sito en c/ Pagaegi, 5 al objeto de destinarlo a la ejecución de sus programas en beneficio de la ciudadanía.

Asimismo se da cuenta del informe técnico favorable de la Responsable de Servicios Sociales, y la propuesta de la Comisión de Servicios Sociales.

Vistos los informes emitidos por:

- el Secretario Municipal,
- la Arquitecta Municipal
- el Interventor Municipal

A continuación la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio propone al Pleno Municipal la aprobación de la

egin dio:

Udalak bere lokalen lagapena arautzen du "Udal lokalak erabiltzen lagatzeko Ordenantza Arauemailea"ren bidez, interes publikoko arrazoiengatik.

Araudi horren arabera, eta, zehazki, 2. artikuluak jasotzen duenaren arabera, Cruz Roja-Gurutze Gorriaren eskaerak bat egiten du helburu hauekin:

Hainbat elkartek antolatutako kultura, informazio, prestakuntza, hezkuntza eta jolas alorreko programak eta zerbitzuak abiarazteko erraztasunak ematea.

Proposatzen den lagapena 3. artikuluak xedatutako hau da: "Doako izaera eta iraupen jakin bat duen erabilera-lagapena, inola ere ez da alderdietako baten aldeko eskubide ekonomiko edo errenta-eskubidetzat hartuko."

Aurrena.- Onespena ematea Pagaegi kaleko 5ean dagoen lokal partekatua Gurutze Gorriari lagatzeko, lagapen hori Udal Lokalen Erabilera eta Lagapena arautzen duen Ordenantzak xedatu bezala eginez.

Lagapenak 4 urteko iraupena izango du eta 10 urteko gehieneko luzapena. Lagapenari amaiera emateko arrazoi izango da lokala egokitu eta erabilgarri utzi zenetik aurrera lokalean ez instalatzea 6

propuesta:

El Ayuntamiento a través de la "Ordenanza Reguladora de Cesión y uso de Locales municipales" regula la cesión de dichos locales por razones de interés público social.

Según dicha normativa en el Art. 2 la solicitud de Cruz Roja-Gurutze Gorria se une al objetivo:

Facilitar la puesta en marcha de programas y servicios de carácter cultural, informativo, formativo, educativo y lúdico que se organicen por diferentes asociaciones.

El tipo de cesión que se propone es de "cesión de usos con carácter gratuito y de duración intermedia, sin que en ningún momento pueda considerarse que la misma constituya derecho económico o arrendaticio a favor de cualquiera de las partes" Art. 3

Primero: Aprobar la cesión del local compartido de la c/ Pagaegi 5, a favor de la Cruz Roja según expresa la Ordenanza Reguladora de cesión y uso de locales municipales.

La cesión tendrá un carácter de duración de 4 años con prórroga máxima de 10años. Será causa de extinción no proceder a la instalación efectiva en el local en el plazo de 6 meses a partir de la

hilabeteko epean.

Bigarrena.- Alkateari, Miguel de los Toyos Nazábal jaunari baimena ematea lagapena sinatu dezan.

Hirugarrena.- Lagapen honen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea argitara.

Laugarrena.- Autonomia Erkidegoan gai honetan eskumena duen organoari, espedientea bidalita, honen berri ematea jakinaren gainean gera dadin."

fecha de puesta a disposición y acondicionamiento.

Segundo: Autorizar al señor Alcalde, D. Miguel de los Toyos Nazábal, para la firma de la cesión.

Tercero: Publicar el texto de la referida Cesión en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Cuarto: Dar cuenta al órgano competente de la Comunidad Autónoma a efectos de que tenga conocimiento de la misma, mediante remisión del expediente."

Akordiorako proposamena: Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudi berria onartzea.

"Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudi berriaren testuaren berri eman da, bai eta 2018ko ekainaren 20an Etxeko Laguntza Zerbitzuko eta Gizartekintzako arduradunek egindako txostenen berri ere eta Idazkari Nagusi jaunak 2018ko azaroaren 7an egindakoaren berri.

Bozketara eramanda, Erakunde, Lege eta Lurralde gaietarako Lan batzordeak erabaki zuen honako proposamen hau egitea Udalbatzari:

Propuesta de acuerdo: aprobación del nuevo Reglamento municipal del Servicio de Ayuda a Domicilio.

"Se da cuenta del texto del nuevo Reglamento Municipal del Servicio de Ayuda a Domicilio así como de los informes emitidos el 20 de junio de 2018 por las Responsables del Servicio de Ayuda a Domicilio y de Servicios Sociales y el 7 de noviembre de 2018 por el Secretario General.

Sometido a votación, la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales, acordó proponer al Pleno Municipal la adopción del siguiente

**ERABAKIA**

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal Araudiari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean uztea 30 lanegunez, egin nahi diren iradokizunak aurkez daitezen. Jakitera emango da jendaurreko informazio-izapide hori iragarkia kaleratuta udaletxeko iragarki-taulan, Udalaren web-orrian, Gipuzkoako lurralde historikoan hedapen handiena duen egunkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkeztu ezean, Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal Araudia behin betikoz onartutzat dagoela ulertuko da eta ez da berariazko akordiorik hartu beharrik izango; nolanahi ere, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da testu osoa; eta, baldin eta alegaziorik balego, alegazioak Udal Osoko Bilkuran ebatziko dira."

Kristobaldegiko Jesus, Maria eta Jose Ama Kontzeptzionista Frantziskotarren Monasterioak jarritako 580/2018 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan

**ACUERDO**

Primero.- Aprobar inicialmente el Reglamento municipal del Servicio de Ayuda a Domicilio.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por un plazo de 30 días para la formulación de las observaciones que se estimen oportunas. El trámite de información pública se dará a conocer mediante anuncio en el tablón de edictos y página web del Ayuntamiento, diario de mayor difusión del territorio histórico de Gipuzkoa y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Tercero.- De no presentarse alegaciones, el Reglamento municipal del Servicio de Ayuda a Domicilio se entenderá definitivamente aprobado sin necesidad de un nuevo acuerdo expreso, si bien para su entrada en vigor deberá publicarse el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa; y caso de ser presentadas alegaciones, éstas se resolverán por el Pleno municipal."

Personación en recurso contencioso 580/2018 interpuesto por Madres Concepcionistas Franciscanas del Monasterio de Jesús María y José de

pertsonatzea.

"Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak Udal honi ofizioa bidali dio, Kristobaldegiko Jesus, Maria eta Jose Monasterioko Ama Kontzeptzionista Frantziskotarrak sartu duten 850/2018 zenbakiko ohiko prozedurako administrazioarekiko auzi-errekurtsora Udala epatzen; errekurtso hori Ipurua Kirol Ekipamenduko Sistema Orokorraren Plan Bereziaren 2. aldaketari 2018ko uztailaren 24ko Udal Osoko bilkurak emandako behin betiko onespenaren kontrakoa izanik.

Erakunde, Lurralde eta Lege Gaietarako Lan Batzordeak proposamena egiten dio Udal Osoko bilkurari:

**ERABAKIA**

**Aurrena.-** Aipatu den administrazio-espedientea bidaltzea.

**Bigarrena.-** Pertsona dadila Udala ohiko prozedurako 580/2018 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, eta izenda dezala Jon Orue-Etxebarria Iturri letratu defendatzaile, zeina Gipuzkoako Elkargoko Saioa Etxabe

Kristobaldegi.

"Habiéndose remitido a este Ayuntamiento oficio del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo contencioso-Administrativo, por el que se interesa el expediente y se emplaza a este Ayuntamiento en recurso contencioso administrativo procedimiento ordinario nº 850/2018, interpuesto por Madres Concepcionistas Franciscanas del Monasterio de Jesús María y José de Kristobaldegi contra acuerdo de Pleno Municipal de 24 de julio de 2018 de aprobación definitiva de la 2ª Modificación del Plan Especial del Sistema General de Equipamiento Deportivo de Ipurua.

La Comisión de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales, propone al Pleno Municipal la adopción del siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** La remisión del expediente administrativo de referencia.

**Segundo.-** Personarse el Ayuntamiento en recurso contencioso administrativo 580/2018, procedimiento ordinario, y designar como letrado defensor a D. Jon Orue-Etxebarria Iturri que podrá servirse de las procuradoras Dña. Saioa Etxabe

Azkue, Mª Luisa Linares Farias, Carlos Tomás Moreno Ortueta, eta Luis Echániz Aizpuru prokuradoreez balia daiteke, eta Bizkaiko Elkargoko Maria Begoña Fernández de Gamboa Iragorri eta Yolanda Cortajarena Martínez prokuradoreez, Udal honek ahaolorde orokorrak emana baitizkie auzietarako.

Azkue, Dña. Mª Luisa Linares Farias, D. Carlos Tomás Moreno Ortueta, D. Luis Echániz Aizpuru del Colegio de Gipuzkoa, y Dña. Maria Begoña Fernández de Gamboa Iragorri y Dña. Yolanda Cortajarena Martínez del Colegio de Bizkaia, a favor de las cuales este Ayuntamiento tiene otorgados poderes generales para pleitos.

**Hirugarrena.-** Administraziorako Auzietarako 29/98 Eskumen Legearen 46. artikuluaren ondorioetarako hauxe jasoarazten da; errekurtsoa sartu duenaz gain, interesatua dela baita Sociedad Deportiva Eibar SAD ere, eta horri ere dei egingo zaiola errekurtsoan pertsona dadin.

**Tercero.-** Hacer constar, a los efectos del artículo 49 de la Ley 29/98 de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, que aparece como interesada, además de la recurrente, la Sociedad Deportiva Eibar, S.A.D., a quien se le emplazará para que pueda personarse en el recurso.

**Laugarrena.-** Adieraztea ez dagoela beste inongo administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkaratutako administrazio-jarduera horrekin loturik."

**Cuarto**.- Informar que no existen recursos contencioso-administrativos en relación con la actuación administrativa impugnada."

Lanpostuen Zerrenda aldatzea Ingurumeneko Teknikari plaza 1 eta Haurtzaro, Familia eta Adikzio arloetako teknikari plaza 1 sortuta eta Pegora arloko informazio-izapidetzako laguntzaile plazaren lanaldia aldatzea.

Modificación de la Relación de puestos de Trabajo con la creación de 1 plaza de Técnico/a de Medio Ambiente, 1 plaza de Técnico/a de Infancia, Familia y Adicciones y modificar la jornada de la plaza de auxiliar de información-tramitación del área de Pegora.

"Udal Idazkari Nagusiak, Kontu-hartzaileak

"Viendo los informes del Secretario

eta Antolaketa eta Langileria zuzendariak egin dituzten txostenak ikusita, Lan Batzordeak Lanpostuen Zerrenda aldatzeko eta honako lanpostu hauek sortzeko erabakia hartzeko proposamena egin dio Udal Osoko bilkurari, bertan adierazitako kontratu motaren arabera:

1. Kontratu mota: Funtzionarioa

Izena: Ingurumeneko teknikaria

Titulazio-taldea: A2

Administrazio Bereziko eskala: Ingurumen Zientzietako Graduatua

Ordainsari-maila: 15, UDALHITZ

DO 26

DB 10.305,45 euro.

4HE, derrigortasun-data: 2018ko azaroaren 26a

2. Kontratu mota: Funtzionarioa.

Haurtzaro, Familia eta Adikzio arloetako teknikari plaza sortzea:

Titulazio taldea: A2

Administrazio Bereziko eskala: Politikan, Soziologian, Psikologian, Pedagogian, Gizarte-lanean edo Gizarte hezkuntzan Graduatua.

General, el Interventor y la Directora de Organización y Personal. La comisión de trabajo propone al Pleno Municipal la aprobación de la modificación de la Relación de puestos de trabajo modificando y creando los siguientes puestos:

1. Tipo de Contrato: Funcionario/a

Denominación: Creación de plaza de Técnico/a de Medio Ambiente:

Grupo de titulación A2

Escala administración especial: Graduado Ciencias Ambientales

Nivel retributivo 15 UDALHITZ

CD 26

CE 10.308,45 €

PL4 fecha de preceptividad 26/11/2018.

2. Tipo de Contrato: Funcionario/a

Creación de plaza de Técnico/a de Infancia, Familia y Adicciones:

Grupo de titulación A2

Escala administración especial: Graduado/a políticas, sociología,

psicología, pedagogía, trabajo social, educación social.

Ordainsari-maila: 17, UDALHITZ

DOCD 26

DB 13.773,16 euro.

3HE, derrigortasun-data: 2018ko azaroaren 26a

Nivel retributivo 17 UDALHITZ

CD 26

CE 13.773,16 €

PL3 fecha de preceptividad 26/11/2018

3. 164.1 kodeko plaza: informazio-izapidetzako laguntzaileari lanaldia aldatu, eta "lanaldiaren % 56,6" izan beharrean lanaldiaren % 100 ezarri.

3. Plaza código 164.1 auxiliar informacion-tramitacion modificar la jornada del “56,5 % de jornada”, al 100% de la jornada.

Lanpostuen Zerrendako aldaketa hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

Publicar en el Boletín de Oficial de Guipúzcoa dicha modificación de la Relación de puestos de trabajo.

<u>Norbere eginbeharretarako ordaindu gabeko baimen eskaera.</u>

“Gaur egun Udalhitzek jasotzen du norbere eginbeharretarako ordaindu gabeko baimena; honela idatzita dagoena:

”62. artikulua. Norbere eginbeharretarako ordaindu gabeko baimena.

1. Norberaren eginbeharretarako ordaindu

<u>Modificación del Permiso no retribuido por asuntos propios.</u>

“Actualmente el Udalhitz contempla en permiso no retribuido por asuntos propios en los siguientes términos:

Artículo 62. Permiso no retribuido por asuntos propios

1. Se podrán conceder permisos no

gabeko baimenak eman ahal izango dira.

retribuidos por asuntos propios, sin derecho a retribución alguna.

2. Baimen horren gutxieneko iraupena etenik gabeko 7 egun naturalekoa izango da eta baimen egun horien batuketa ezin izango da hiru hilabetekoa baino gehiagokoa izan bi urtean".

2. La duración de este permiso será por períodos mínimos de 7 días naturales consecutivos y la duración acumulada no podrá exceder de tres meses cada dos años.

Ikusita 2018ko irailaren 26an negoziazioko mahai orokorrak hartu zuen erabakia eta Antolaketa eta Pertsonal zuzendariak 2018ko azaroaren 15ean egindako txostena, Udal Osoko bilkurari, 62. artikuluari honako paragrafo hau gehitzeko proposamena egiten zaio:

Visto el acuerdo de la mesa general de negociación de fecha 26 de septiembre de 2018 y el informe de la directora de organización y personal de fecha 15 de noviembre de 2018, se propone al Pleno Municipal adicionar este párrafo al artículo 62:

3. Gobernuz Kanpoko Erakunderen batek hala eskatu diola-eta, langileak beste herrialde batzuetan garatzen diren laguntza- eta elkarlan-programetan parte hartzen badu, baimen honek 9 hilabetera arteko iraupena izan dezake. Baimena ematea ala ez ematea zerbitzuak dituen premien arabera geratuko da; eta baimena emateak antolamendu-arazoak ekartzen baditu langileak lan egiten duen arloan, ezetza eman dakioke idatziz.

Baimendutako epea igaro ondoren, eskaera egin duen langilea bere lanpostura itzuliko da. Ez bada itzultzen, interes partikularreko borondatezko eszedentzia egoeran geratuko litzateke eskatzen

3. En caso de participación en programas de ayuda y colaboración con otros países, cuando así sea requerido por alguna Organización No Gubernamental, la duración de este permiso podrá ser de hasta 9 meses. La concesión estará condicionada a las necesidades del servicio, pudiendo denegarse por escrito cuando su autorización conlleve problemas organizativos en el área en la que preste servicios el personal interesado.
Transcurrido el plazo autorizado el/la solicitante deberá reincorporarse a su puesto de trabajo. En caso de no producirse la reincorporación pasará a situación de excedencia voluntaria por

zaizkion baldintzak betetzen baditu, betiere.

Baimen horretaz gozatzeak ez dio ematen eskubiderik inongo ordainsaririk jasotzeko ezein kontzeptutan.

Artikulu honen ondorioetarako, baimena jaso duen pertsonalari lanpostua gordetzeko eskubidea aitortzen zaio.

Baimena emateko, baimena eskatu duen langilearen laguntza eskatu duen Gobernuz Kanpoko Erakundea derrigorrean egon behar da inskribatuta diru-irabazi asmo bariko Euskadiko Elkarteen Erregistroan edo estatukoan.

interés particular siempre que reúna los requisitos exigidos.

El disfrute de esta autorización no dará derecho a la percepción de retribución alguna por ningún concepto.

A los efectos de este artículo, se reconoce al personal autorizado el derecho a la reserva del puesto de trabajo.

La concesión del permiso requiere que la Organización No Gubernamental que solicite la colaboración del/la solicitante figure inscrita en el Registro de Asociaciones sin ánimo de lucro de la Comunidad Autónoma del País Vasco o del Estado.

MOZIO ALTERNATIBOA

"Arcadio Benitez jaunak, Eibarko Udaleko PSE-EE taldeko bozeramaleak, honako MOZIO ALTERNATIBOA aurkeztu dio Irabazi-Ganemos Eibar udal taldeak ikastetxe, kulturgune eta haurrentzako eremuetan apustu-aretoen eta ausazko jokoen kokapena mugatzeari buruz aurkeztu duen mozioari.

MOZIOA

1- Eibarko Udalbatzak bat egiten du azaroaren 15ean Eusko Jaurlaritzak

MOCIÓN ALTERNATIVA

"D. Arcadio Benitez, Portavoz del Grupo PSE-EE en el Ayuntamiento de Eibar presenta para su tratamiento la siguiente MOCION ALTERNATIVA a la presentada por el Grupo Municipal Irabazi- Ganemos Eibar, sobre limitación de la ubicación de salones de apuestas y juegos de azar de centros educativos, culturales y espacios infantiles.

MOCIÓN

1- El Pleno de Ayuntamiento de Eibar se suma a la resolución aprobada por el

Osoko Bilkuran onartutako ebazpenarekin, Eusko Jaurlaritzari hauxe eskatzen diona:

a) behin Jokoaren Euskal Behatokia eratuta, egin dezala 8 hilabeteko epean azterketa bat jakiteko zein den jokoaren egoera Euskadin, bereziki aztertuz zer eragin duen adingabekoengan. Txosten hori Euskadin jokoaren eta adikzioen arloan parte harten duten organoei igorriko zaie.

b) azterketa horretan oinarrituta, egin dezala ekintza-plan bat honako helburu hauek izango dituena:

-adingabekoei eta debekatuta dutenei jokora sarbidea izan dezaten saihestea.

-jokoaren erabilera desegokiarekin lotutako arriskuak murriztea.

-jokoaren eta sustantziarik gabeko adikzioen arriskuez kontzientziatzea eta sentsibilizatzea, bereziki hezkuntzaren esparruan.

2- Eibarko Udalbatzak hitz ematen du, bere eskumenen barruan eta aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera, lankidetzan arituko dela ekintza-plan hori martxan jartzeko."

Parlamento Vasco en el Pleno celebrado el 15 de noviembre, mediante la que se insta al Gobierno Vasco a que,

a) una vez constituido el Observatorio Vasco del Juego, elabore en el plazo de 8 meses un estudio sobre la situación del juego en Euskadi, con especial consideración a su afección a las personas menores de edad. Dicho informe, será remitido a los órganos de participación del ámbito del juego y de las adicciones de Euskadi.

b) en base a los resultados de dicho estudio, elabore un plan de acción orientado a:

- evitar el acceso al juego a personas menores y a aquellas que lo tengan prohibido.

-reducir los riesgos asociados a un uso inadecuado del juego.

-concienciar y sensibilizar sobre los riesgos del juego y de las adicciones sin sustancia en general, especialmente en el ámbito educativo.

2- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar se compromete, dentro de sus competencias y en base a su disponibilidad presupuestaria, a colaborar en la puesta de dicho plan de acción."

<u>MOZIO ALTERNATIBOA</u>

<u>MOCIÓN ALTERNATIVA</u>

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak etxe-atari seguruei buruz aurkeztutako mozioa dela-eta, Eibarko Udaleko PSE-EE udal taldeak, Udaleko Berdintasun zerbitzuan jasotako informazioa oinarri hartuta, honako mozio alternatibo hau aurkezten du Udal Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozkatu dezan:

- Bilkura honek aitortu egiten du Andretxeak eta gure herriko Berdintasun zerbitzuak egindako lana, berdintasun osoa sustatu, ahalbidetu, bultzatu eta lantzeko.

- Bilkura honek aitortu egiten du Hirigintza arloak eta Berdintasun sailak espezifikoki 2010etik hona egindako lana, genero ikuspegiko lehen hirigintza-diagnostikoa egin dute-eta.

- Bilkura honen helburua da, dagokion unean, oraingo udal araudia, alegia, Hiriaren Antolamendurako Plan Orokorra berrikustea eta hura genero ikuspegira egokitzea, espazio publikoa eta segurtasuna kontuan hartuz; hortaz, Hirigintza sailari eta Berdintasun sailari eskatzen diegu elkarlanean jardun dezatela helburu hori lor dadin.

En relación a la moción presentada por el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV sobre portales seguros y, en base a la información recabada en el servicio de Igualdad del Ayuntamiento, los grupos abajo firmantes presentan la siguiente moción alternativa o transaccional para su debate y votación en Pleno:

- Este Pleno reconoce el trabajo realizado por Andretxea y el servicio de Igualdad de nuestra ciudad para fomentar, favorecer, concienciar y trabajar por una igualdad plena.

- Este Pleno reconoce el trabajo realizado, específicamente, en el ámbito de Urbanismo y Género a nivel municipal desde 2010, con la elaboración de un primer Diagnóstico urbano con perspectiva de género.

- Este Pleno aboga por trabajar en el momento que corresponda por una revisión de la actual normativa municipal, Plan General de Ordenación Urbana y adecuación de la misma desde la perspectiva de género en cuanto al espacio público y a la seguridad, por lo que instamos al departamento de Urbanismo y al servicio de Igualdad a trabajar conjuntamente en la persecución de este fin.

- Gogoeta ez da mugatuko bakarrik pegoretara edo atarietara; garajeak eta emergentziazko irteerak era kontuan hartuko ditu:

  - Atariak…
  - Garajeak…
  - Larrialdietako irteerak...”

- La reflexión no debe ceñirse solo a portales, sino que también debe tener en cuenta garajes y salidas de emergencia:
-
  - Portales…..
  - Garajes…..
  - Salidas de emergencias……”

MOZIO ALTERNATIBOA

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak Eibarko Ospitalerako garraioari buruz aurkeztu duen mozioaren aurrean, Eibarko PSE-EE udal taldeak honako mozio hau aurkeztu du Udal Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozkatu dezan:

Kontuan hartuta,

- Proiektuaren kokapena aztertzeko fasetik hasi, proiektuaren idazketarekin jarraitu eta hura burutu arte, Osakidetzak beti adierazi du herriarteko garraioa, gehi Udalbusa, gehi tranbia, taxi-geltokiarekin batera eta Donostiarako norazkoan dagoen autobus-geltoki egokitua… horiek guztiak nahikoa zirela Zentroaren premiei erantzuteko.

- Halaber, inguruan zeuden aparkalekuak

MOCIÓN ALTERNATIVA

En relación a la moción presentada por Eibarko EAJ-PNV sobre transporte público y aparcamiento en el Hospital Eibar, se presenta la siguiente moción para su debate y votación en Pleno.

Teniendo en cuenta que,

- Desde la fase de estudio de la ubicación, redacción del proyecto y ejecución del mismo, por parte de Osakidetza siempre se ha trasladado que el transporte interurbano existente, más el Udalbus, más el tranvía, con la ubicación de la parada de taxis y la adecuación la parada de autobús sita en la dirección Donostia/ San Sebastián, era suficiente para las necesidades del Centro.

- Que, asimismo, la dotación de

aski zirela eta, baztertu egin zen aparkaleku gehiago egitea eraikinaren beheko solairuan barruko zerbitzurako egin denaz aparte.

aparcamiento del entorno se consideró suficiente y, por tanto, se descartó hacer más aparcamientos que el finalmente ejecutado en la planta baja del edificio para servicio propio.

MOZIOA

Aurrez azaldutakoaren arabera,

Bilkura honek eskatzen dio Osakidetzari Udal honi jakinaraz diezaiola Zentroari eskaintzen zaizkion garraio publikoak behar adinakoak diren ala ez, bai eta emandako zerbitzutik eratorritako aparkaleku premiarik dagoen ala ez; eta, hala balitz, jakinaraz dezala zer neurri hartuko dituen, esaterako, eraikinean dagoen aparkalekua gaixoek ere erabili ahal izateko.

MOCIÓN

Por todo lo expuesto,

Este Pleno solicita a Osakidetza que traslade a este Ayuntamiento la idoneidad o no de los servicios de transporte público que se ofrecen al Centro, así como la existencia o no de necesidades de aparcamiento derivadas del servicio prestado y, si fuera así, informe de las medidas a adoptar como, por ejemplo, ampliar el uso también a pacientes del aparcamiento existente en el edificio.